



UDAL JABETZA PUBLIKOKO LURRAREN AZPIAN EGINGO DIREN OBRENTZAKO LIZENTZIA.

Obra gauzatzeko jabetza publikoko udal lurlean (kaleak, plazak, parkeak, lorategiak, eta abar) zangak eta hondaketak egin behar izateari egiten dio erreferentzia. Aipatu obrak zeinahi motako zerbitzu edo kanalizazio jartzeko, zaintzeko edo berritzeko egin behar izaten dira. Moltzo honen barruan, halaber, jabetza publikoko udal lurraren azpiaren gain eragina duten obra guztiak sartzen dira.

Ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:

- * Egin beharreko obren proiektua, teknikari eskumendunak idatzia (Segurtasunari eta Osasunari buruzko Oinarritzko Txostena edo Segurtasunari eta Osasunari buruzko txostena), beraren Elkargo Profesionalak ikus-onetsia.
- * Obrek bidean aurkituko dituzten kanalizazio eta zerbitzu guztien jabetza-agirien fotokopia. Horretarako, Iberdrola, Euskaltel, Gas Natural, Udaleko Zerbitzuak eta obrekin zerikusirik izan dezaketen bestelako zerbitzuekin harremanean jarri beharra dago. Horrela, eragile bakoitzari dagozkion arauak eta eskakizunak kontuan hartuko da eta erasandako instalazioak aurrez ezagutu eta kokatu ahal izango dira zehaztasun osoz.
 - Arestian aipatutakoaren egiaztatgiri moduan, kanalizazio sareen jabe den eragileak igorritako idatzia onartuko da. Aipatu idatziarekin batera, halaber, planoak edo ondoko web orrian eskuragarri dagoen kontratua bidali beharra dago: [INKOLANek kudeatutako www.inkolan.com](http://INKOLANek.kudeatutako.www.inkolan.com).
- * Elkargoaren aginduari buruzko Jakinarazpen Orria edo/eta esku hartuko duten Teknikarien zerbitzu profesionalak kontratatzeako agiriak, bi aldeek sinatuak.

EBAZPENA EMATEKO EPEA: HILABETE 1.

AKATSAK ZUZENTZEKO EPEA: 15 egun.

Akats horiek ez badira zuzentzen, eskaria beste izapiderik gabe artxibatuko da.